

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Irrati Telebista
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa
(EITB) eta mendeko dituen sozietateak**

**Ente Público de Derecho Privado
Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca
(EITB) y sus sociedades dependientes**

2014





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	6
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
III:1.1. Zuzendaritzako langileen kontratazioa.....	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Langileria.....	9
III.1.1 Zuzendariak	9
III.1.2 Burutzak	10
III.1.3 Gauzazko ordainsariak	10
III.2 Aurrekontuak	10
III.2.1Aurrekontuko mugaketak	10
III.3 Beste batzuk	10
III.3.1Hornitzaileei ordainketak	10
IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA.....	11
IV.1 EITB eta taldeko sozietateen kontu kontsolidatuak	11
IV.2 EITBren eta taldeko sozietateen banako kontuak.....	13
IV.3 EITBren eta taldeko sozietateen aurrekontu likidazioa.....	18
ALEGAZIOAK.....	20



ABREVIATURAS	25
I. INTRODUCCIÓN.....	26
II. OPINIÓN.....	28
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	28
II.1.1 Contratación de personal directivo	28
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	28
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	29
III.1 Personal.....	29
III.1.1 Personal directivo	29
III.1.2 Jefaturas	30
III.1.3 Retribuciones en especie	30
III.2 Presupuestos.....	30
III.2.1 Limitaciones presupuestarias.....	30
III.3 Otros.....	30
III.3.1 Pagos a proveedores	30
IV. CUENTAS ANUALES Y LIQUIDACIÓN DE PRESUPUESTOS	31
IV.1 Cuentas consolidadas de EiTb y sociedades del Grupo	31
IV.2 Cuentas individuales de EiTb y sociedades del Grupo.....	33
IV.3 Liquidación de presupuestos de EiTb y sociedades del Grupo.....	38
ANEXOS	41
A.1 Naturaleza y normativa aplicable	41
A.2 Gastos de personal y plantillas.....	42
A.3 Gastos e inversiones relacionados con la producción	44
A.4 Contratación.....	45
ALEGACIONES	47

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 21ean

Vitoria-Gasteiz, 21 de abril de 2016



LABURDURAK

20/2012 ELD	20/2012 Errege Dekretu Legea, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa.
4/2013 Legea	4/2013 Legea, abenduaren 20koa, 2014ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAETB	1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden lege xedapenen bateratutako testua onartzen duena.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena.
EI, SAU	Eusko Irratia, SA kide bakarreko sozietatea.
EITB	Euskal Irrati Telebista Ente Publikoa.
EITBNET, SAU	Eitbnet, SAU kide bakarreko sozietatea.
EJ	Eusko Jaurlaritzaren Auzitegiak.
ETB, SAU	Euskal Telebista, SA kide bakarreko sozietatea.
GI, SAU	Gasteiz Irratia, SA (kide bakarreko sozietatea).
GSDN	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bategina.
TVCP/HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak ezarritakoari jarraiki, Euskal Irrati Telebista /EITB Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren eta mendeko dituen Sozietateen Urteko Kontuak fiskalizatu ditu, 2014ko ekitaldiari dagozkionak.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Ondasun eta zerbitzuen erosketan, langilerian eta ekonomia-finantzaren kudeaketan indarreko legeria bete dela egiaztatzea.
- Kontularitzakoak: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta eragimenari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia defendatzeko, baita kanpoko auditore batek egindako urteko kontuen auditoria euskarritzen duten lan paperen azterketa ere.

EiTB Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak sortu zuen eta berezko nortasun juridikoa du. Autonomia Estatutuaren 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, eskuordetu ziren eskumenen esparruan Autonomia Erkidegoari dagozkion egitekoak betetzen ditu, irrati eta telebista zerbitzuen titular den aldetik.

Irrati-telebistako zerbitzu publikoen kudeaketa horretarako sortutako sozietateen bitartez gauzatzen da: Euskal Telebista-Televisión Vasca, SAU/ETB, SAU, Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, SAU/EI, SAU, Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, SAU/RV, SAU eta Eitbnet, SAU/EITBNET, SAU. Horrez gain, 2014ko abenduaren 31n EITBNET, SAUk honako partaidetza hauek ditu: Vilau Media, SLn, % 25; Expressive Media Proyects, SLn % 24,62; Media For Future, SLn % 16,43; eta Kulture Klub Euskadi, SLn % 22,73.

EiTB eta mendeko sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EAEn Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatzen dira, 5/1982 Legearen 45 artikulua agintzen duenaren arabera. Bestetik, EITBNET, SAU Estatutuaren 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreren bidez finantzatuko da.

2014ko ekitaldirako ez da inongo kontratu-programarik izenpetu, ezta horren jarraipen-batzorderik elkartu ere eta 2012koa luzatu da, 2012ko ekainaren 21ean izenpetutako kontratu-programaren 7. klausulan jasotakoari jarraiki, alde aurretik 2011ko abenduaren 28ko jarraipen batzordeak eta 2012ko maiatzaren 22ko EJren Gobernu Kontseiluak onartu zutena.

Kontratu-programa honek, aurrekoek bezala, Erakundeak gauzatu beharreko irrati-telebistako zerbitzu publikoaren edukiak definitzen ditu; irrati-telebistako zerbitzu publikoa emateko dituen konpromisoak, zerbitzua kudeatzekoak, eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpenen



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

bitartez finantzaketa egonkorra definitzen du, berariazko jarduerak, zerbitzuen prestazioak eta Erakundearentzat eta bere Kudeaketa Sozietateentzat aktibo erreal eta finantzazkoetan egindako inbertsioek eragindako ustiapen gastua berdintzeko.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 ZUZENDARIEN KONTRATAZIOA

1. 5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua zuzendari nagusiari eskumena ematen badio ere “erakunde publikoko eta bere sozietateetako zuzendaritza-langileak irizpide profesionalak baliatuta izendatzeko, aldez aurretik izendapen horien berri administrazio kontseiluari emanez”, egia da ere zuzendaritzako langilearen figura ez dagoela zehaztuta.

Alabaina, 5/1982 Legearen 47. artikulua dio Ente Publikoko eta mendeko dituen Sozietate Publikoetako langileria laneko legerian xedatutakoak arautuko duela (47.1 artikulua), nahiz era berean dioen “Enterako eta bere Sozietateetarako langileen hautaketa deialdi publiko bidez egingo da eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraiki” (47.2 artikulua).

130/1999 Dekretuari jarraiki, EITBk “goi kargudunetan” 4 pertsona ditu izendatuak eta gainera, kargu horietarako goi zuzendaritzako kontratua nahitaez baliatu behar dela ezartzen du.

2014ko ekitaldian zuzendaritza postu funtzionaletara 19 pertsonen izan dute sarbidea, Entea sortzen duen Legearen 16. artikuluan aurreikusten den “profesionaltasun” kontzeptua baliatuta, aurrez aipatutako 4/1996 Legeak aldarazitakoa; horietatik guztietatik bakar batek ez zuen aldez aurretik Eitb taldearekin kontratu harremanik eta ez da “goi kargudun” modura ageri; honenbestez, ezin zaio aipatutako irizpidea aplikatu eta ondorioz, 5/1982 Legearen 47. artikulua urratu du.

Epaitegi honen ustetan, Enteak eta mendeko sozietateek aurreko paragrafoan aipatutakoa alde batera, zuzentasunez bete dute 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Entearen eta mendeko sozietateen Urteko Kontu finkatuek alderdi esanguratsu guztietan 2014ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 LANGILERIA

III.1.1 ZUZENDARIAK

2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen plantillan, 2014ko uztailaren 22ko EITB taldearen organigrama berria onartu ondoren, berariazko araudiari meneratutako 4 “goi kargudunetz” gain, beste 72 pertsona ageri dira “zuzendaritzako langile” modura; horietatik, aurreko urteetan sartutako 22 aurretik EITB taldearekin kontratu harremanik ez zuten pertsonak dira, deialdi publikorik gabe eta 5/1982 Legearen 47. artikulua xedatzen dituen merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemen babesik gabe kontratatu direnak; halaber, beste 50 pertsona, guztiak 2014 baino lehenago sartutakoak, taldeko langile finkoak dira, izendapen askearen prozedura baliatuta eskuratu dutenak lanpostua, 4/1996 Legearen 1.2 artikuluari jarraiki, 5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duena.

Gainera, organigramaz kanpo erantzukizun karguak dituzten 39 pertsona daude; horietako 19, aurretik EITB taldearekin kontratu harremanik ez zuten pertsonak dira, deialdi publikorik gabe eta 5/1982 Legearen 47. artikulua xedatzen dituen merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemen babesik gabe kontratatu direnak. Gainerako 20 pertsonak EITB taldeko langile finkoak dira.

Zuzendaritzak 2013ko ekainean profesionaltasun irizpideekin eta aurretik EITB taldearekin lan-harremanik ez zuten 41 pertsonen, 22 organigraman jasoak eta 19 organigramaz kanpokoak, banaka berretsi ziren konfiantzazko langile izaera eta karguan jarraipena, egungo zuzendaritzaren agintaldiaren iraupenari meneratua. 2014an sartu ziren berriek izenpetutako kontratuan, jada egoera hori jasoa dute.

Askotariko komunikabideen jabe den Ente batek duen berariazkotasuna aintzat hartuta eta gogoan izanik 2013an organigramako postuak murriztu zirela eta honenbestez, profesionaltasun irizpideak baliatuta izenda daitezkeen zuzendariak (5/1982 Legearen 16.2.f artikulua), kanpotik datorren langileriaren kontratazioa bideratzeko eta zuzendari nagusiaren eskumenak laneko legeria betetzearekin eta deialdi publikora meneratzearekin bateragarri egiteko, merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraikiz (Entearen Legearen 16. eta 47. artikulua), gomendagarria litzateke zuzendari nagusiak Administrazio Kontseiluari organigramaren aldaketa bat onartzeko proposatzea, non “goi kargudun” iritzitako lanpostuak edo baliokideak jasoko diren, zentzuzko kopuru batean, 130/1999 Dekretuaren ondorioetarako eta non lanpostu horiek izango diren EITB taldearen plantillakoak izan gabe txertatu daitezkeen bakarrak, profesionaltasun irizpideak oinarri hartuta, zuzendari nagusiaren agintaldiak dirauen epeari lotuko zaizkiolarik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1.2 BURUTZAK

Ez da inongo irizpide objektiborik aurreikusi burutzako lanpostuak bete, balioztatu eta ordaintzeko moldeari dagokionez eta zuzendaritzaren esku geratzen da, baina lanpostuaren eta egindako balorazioen ebidentzia utzi gabe.

Beharrezkoa da burutzako lanpostuen beharrianak eta ezaugarriak zehaztea eta horiek balioztatzeko irizpide objektiboak finkatzea, eskagarriak diren betekizunen arabera, hala nola, titulazio taldea, ezagutza teknikoak, zailtasuna, erantzukizuna eta baliagarritasuna.

III.1.3 GAUZAZKO ORDAINSARIAK

Langileei ondasunak erosteko emandako maileguen gauza bidezko ordainketak ez dira horrela aitortzen Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko zergaren ondorioetarako.

III.2 AURREKONTUAK

III.2.1 AURREKONTUAREN MUGAKETAK

Berebat, inbertsioei dagokienez EAETBaren 54.2 artikulua ezartzen duen aurrekontu muga milioi 1 euroan gainditu da, nagusiki, euskal zinemarekiko konpromisoei aurre egiteko beharrak eraginda, ekainaren 7ko 22/99 legea betez. Berebat, langile gastuei dagokienez aurrekontua 709.675 euroan gainditu da, batik bat EI, SAUn, 688.090 euroan. 2014an oker aurrekontuetaratu zen 2013an egindako gastua baino % 4,2ko zenbateko txikiagoa, enplegu eskaintza publikoa hasi eta amaituko zela eta kontratatu mugagabe ez finkoko 39 plaza amortizatuko zirela aurreikusita, plantilla egiazko beharrianetara egokitzeko; ordea, prozesua ezin amaitu izan da 2014an eta gastua 2013koaren oso antzekoa izan da.

III.3 BESTE BATZUK

III.3.1 HORNITZAILEEI ORDAINKETAK

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Xedapen Gehigarri 3.ak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2014ko urtean legezko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 23,3 milioi eurorena izan da, guztira ordaindutakoaren % 28 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 15 egunean gainditu da. Bestetik, 2014ko abenduaren 31n EITB taldeko hornitzaileei ordaintzeke zegoen saldotik 615.985 euroren zenbatekoak (horietatik, 451.761euro ETB, SAUri dagozkio), legeak horretarako finkatzen duen legezko 60 eguneko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

IV.1 EITB ETA TALDEKO SOZIETATEEN KONTU KONTOLIDATUAK

Hona hemen balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbian aldaketen egoera eta eskudiruzko fluxuen egoera, 2014ko abenduaren 31n finkatuak eta auditatuak:

BALANTZE KONTOLIDATUAK			Euroak milakotan		
	2014	2013		2014	2013
AKTIBOA			ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		
AKTIBO EZ ARRUNTA	62.302	68.164	ONDARE GARBIA	75.094	82.005
Ibilgetu ukiezina.....	8.348	7.972	Berezko funtsak.....	64.181	70.527
Ibilgetu materiala.....	53.832	60.096	Funts soziala.....	76.516	223.241
Taldeko enpresetan partaidetzak.....	9	9	Kontsolidat. sozietateetan erretserbak....	114	219
Finantza inbertsioak epe luzera.....	113	87	Baliokidetzan jarritako soziet. erretserbak	(108)	(83)
AKTIBO ARRUNTA	34.077	36.316	Aurreko ekitaldietako ondorioak.....	(5.368)	(145.373)
Izakinak.....	13.340	16.665	Soziet. nagusiari egotzit. ekitald. emaitz. .	(6.973)	(7.477)
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt....	5.909	10.253	Jasotako diru-laguntza, dohain. eta legat....	10.913	11.478
Taldeko eta elkart. enpresetan e/lab. inber..	610	370	PASIBO EZ ARRUNTA	158	211
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	310	24	Aldizkakotzeak epe luzera.....	158	211
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	241	52	PASIBO ARRUNTA	21.127	22.264
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz.	13.667	8.952	Epe laburreko hornidurak eta zorrak.....	2.409	2.723
			Merkat. hartzek. & ordaintz. b.kontu batz. .	18.665	19.328
			Aldizkakotzeak epe laburrera.....	53	213
AKTIBOA GUZTIRA	96.379	104.480	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.	96.379	104.480

KONTOLIDATUTAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA		Euroak milakotan	
		2014	2013
Negozio zifratik zenbateko garbia.....		14.556	13.862
Amaitutako eta fabrikazioan dauden produktuen izakinak gehitzea.....		(2.983)	(2.080)
Hornidurak.....		(37.155)	(39.042)
Bestelako ustiapen sarrerak.....		108.187	109.800
Langileria-gastuak.....		(55.596)	(55.980)
Bestelako ustiapen gastuak.....		(27.023)	(26.725)
Ibilgetuaren amortizazioa.....		(11.337)	(12.428)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste.....		4.395	5.072
USTIAPENAREN EMAITZA		(6.956)	(7.521)
Finantza sarrerak, finantza gastuak eta truke aldeak.....		(17)	85
EMAITZA FINANTZARIOA		(17)	85
Baliokidetasunean jarritako sozietateen mozkinetan (galeretan) partaidetza.....		-	(34)
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(6.973)	(7.470)
Mozkinen gaineko zerga.....		-	(7)
EKITALDIAREN EMAITZA		(6.973)	(7.477)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTSOLIDATUTAKO ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA KONTSOLIDATUA	Euroak milakotan	
	2014	2013
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(6.973)	(7.477)
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak	3.838	3.000
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira.....	(4.404)	(5.075)
AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTU KONTSOLIDATUAK GUZTIRA	(7.539)	(9.552)

B) ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA KONTSOLIDATUAK GUZTIRA	Euroak milakotan				
	FUNTS	AURREKO	JASOTAKO DIRU-LAG.,		
	SOZIALA ETA	EKIT.	EKIT.	DOHAIN. ETA	GUZTIRA
	ERRETSERBAK	EMAITZAK	EMAITZA	LEGAT.	
2012-KO URTEKO DOITUTAKO AZKEN SALDOA	203.365	(137.982)	(7.379)	13.554	71.558
Aitortutako sarrera eta gastuak.....	-	-	(7.477)	(2.075)	(9.552)
Funts sozialaren bariazioa	20.021	-	-	-	20.021
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	(9)	(7.391)	7.379	-	(21)
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	223.377	(145.373)	(7.477)	11.479	82.006
Aitortutako sarrera eta gastuak.....	-	-	(6.973)	(566)	(7.539)
Funts sozialaren bariazioa	1.000	-	-	-	1.000
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	(147.855)	140.005	7.477	-	(373)
2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA	76.522	(5.368)	(6.973)	10.913	75.094

KONTSOLIDATUTAKO ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2014	2013
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(6.973)	(7.470)
Emaitzari doiketak	8.297	8.034
Kapital arruntean aldaketak	5.610	(575)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	48	51
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	6.983	40
Inbertsioen ordainketak	(6.613)	(6.484)
Inbertsio ezagatiko kobrantzak	-	156
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(6.613)	(6.328)
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	(377)	-
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	4.540	4.000
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	4.163	4.000
Truke tipoen bariazioen eragina	(65)	-
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	4.715	(2.288)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	8.952	11.240
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	13.667	8.952



IV.2 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIETATEEN BANAKO KONTUAK

Hona hemen 2014ko abenduaren 31n urteko kontuak, milako euroetan emanak:

BALANTZEA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB, SAU	
	2014	2013	2014	2013
AKTIBO EZ ARRUNTA	63.377	69.243	41.712	46.517
Ibilgetu ukiezina.....	760	541	7.405	7.166
Ibilgetu materiala.....	18.076	19.022	34.307	39.351
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak.....	44.428	49.593	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera.....	113	87	-	-
AKTIBO ARRUNTA	13.929	13.591	28.439	29.517
Izakinak.....	-	-	13.340	16.666
Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste knt. b.	289	4.662	4.450	4.341
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak.....	-	-	10.092	8.428
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	1	1	309	23
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	3	3	231	42
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak.....	13.636	8.925	17	17
AKTIBOA GUZTIRA	77.306	82.834	70.151	76.034

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB, SAU	
	2014	2013	2014	2013
ONDARE GARBIA	64.900	70.851	52.568	56.918
Berezko funtsak.....	64.222	70.418	42.334	45.882
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	678	433	10.234	11.036
PASIBO EZ ARRUNTA	-	-	158	211
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	-	158	211
PASIBO ARRUNTA	12.406	11.983	17.425	18.905
Epe laburreko zuzkidurak.....	-	-	1.160	870
Zorrak epe laburrera.....	-	-	578	1.542
Taldeko eta elkartutako enpresekiko epe laburreko zorrak.....	11.662	11.177	-	-
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk.....	744	806	15.634	16.280
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	53	213
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	77.306	82.834	70.151	76.034



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB, SAU	
	2014	2013	2014	2013
Negozio zifratik zenbateko garbia	-	-	12.599	11.786
Izakinen baloraketa	-	-	(2.983)	(2.080)
Hornidurak	(282)	(215)	(35.953)	(37.128)
Bestelako ustiapen sarrerak	5.774	6.155	86.161	86.091
Langileria-gastuak	(3.999)	(4.105)	(34.846)	(35.199)
Bestelako ustiapen gastuak	(1.581)	(1.545)	(23.445)	(23.572)
Ibilgetuaren amortizazioa	(644)	(27)	(10.290)	(11.881)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea	54	8	4.341	5.064
USTIAPENAREN EMAITZA	(678)	271	(4.416)	(6.919)
Finantza sarrerak	10	6	48	55
Finantza gastuak eta truke aldeak	(30)	(11)	(65)	46
Baliabide finantzarioak besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza	(6.227)	(7.715)	-	-
EMAITZA FINANTZARIOA	(6.247)	(7.720)	(17)	101
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(6.925)	(7.449)	(4.433)	(6.818)
Mozkinen gaineko zerga	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	(6.925)	(7.449)	(4.433)	(6.818)

BALANTZEA

Euroak milakotan

	EI, SAU		GI, SAU		EITBNET, SA	
	2014	2013	2014	2013	2014	2013
AKTIBO EZ ARRUNTA	416	633	1.032	1.092	183	264
Ibilgetu ukiezina	-	4	-	-	183	261
Ibilgetu materiala	416	629	1.032	1.092	-	-
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak	-	-	-	-	-	3
AKTIBO ARRUNTA	2.725	3.638	468	467	702	520
Izakinak	-	-	-	-	-	-
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b.	899	870	180	231	91	149
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak	1.813	2.758	282	229	610	370
Finantza inbertsioak epe laburrera	-	-	-	-	1	1
Aldizkakotzeak epe laburrera	4	4	2	2	-	-
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak	9	6	4	5	-	-
AKTIBOA GUZTIRA	3.141	4.271	1.500	1.559	885	784



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Euroak milakotan

	EI, SAU		GI, SAU		EITBNET, SA	
	2014	2013	2014	2013	2014	2013
ONDARE GARBIA	991	2.499	1.103	1.189	(50)	134
Berezko funtsak	991	2.499	1.103	1.189	(50)	134
PASIBO ARRUNTA	2.150	1.772	397	370	935	650
Epe laburreko zuzkidurak	517	255	83	44	70	-
Zorrek epe laburrera	-	-	-	-	-	13
Taldeko & elkartutako enpresekiko zorr. epe laburrera	-	-	-	-	524	238
Merkat. hartzekod. eta ordaintzeko bste knt batz.	1.633	1.517	314	326	341	399
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	3.141	4.271	1.500	1.559	885	784

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EI, SAU		GI, SAU		EITBNET, SA	
	2014	2013	2014	2013	2014	2013
Negozio zifratik zenbateko garbia	3.207	3.165	542	518	2.865	2.912
Hornidurak	(1.799)	(1.741)	(190)	(209)	(1.184)	(1.628)
Bestelako ustiapen sarrerak	16.612	17.570	3.361	3.569	-	-
Langileria-gastuak	(13.238)	(13.166)	(2.475)	(2.636)	(1.038)	(837)
Bestelako ustiapen gastuak	(6.069)	(5.829)	(1.242)	(1.234)	(808)	(807)
Ibilgetuaren amortizazioa	(229)	(295)	(87)	(86)	(88)	(139)
USTIAPENAREN EMAITZA	(1.516)	(296)	(91)	(78)	(253)	(499)
Finantza sarrerak	1	2	-	-	21	7
Finantza gastuak eta truke aldeak	(2)	-	-	-	-	-
Baliab. finantz. bestereng. narriadura & emaitza ..	-	-	-	-	(2)	(6)
EMAITZA FINANTZARIOA	(1)	2	-	-	19	1
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(1.517)	(294)	(91)	(78)	(234)	(498)
Mozkinen gaineko zerga	-	-	-	(7)	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	(1.517)	(294)	(91)	(85)	(234)	(498)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB, SAU	EI, SAU	GI, SAU	EITBNET, SA
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(6.925)	(4.433)	(1.517)	(91)	(234)
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak ..	299	3.539	-	-	-
Galera-irabazietara transferentziak.....	(54)	(4.341)	-	-	-
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(6.680)	(5.235)	(1.517)	(91)	(234)

B) ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

EITB	FUNTS	AURREKO	JASOTAKO DIRU-LAG.,		
	SOZIALA ETA ERRETSERBAK	EKIT. EMAITZAK	EKIT. EMAITZA	DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZTIRA
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	203.219	(137.982)	(7.391)	441	58.287
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(7.449)	(8)	(7.457)
Funts sozialaren igoerak.....	20.021	-	-	-	20.021
Emaitzaren banaketa	-	(7.391)	7.391	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	223.240	(145.373)	(7.449)	433	70.851
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(6.925)	245	(6.680)
Funts sozialaren igoerak.....	1.000	-	-	-	1.000
Galeren konpentsazioa	(147.343)	147.343	-	-	-
Beste batzuk	(382)	-	-	-	(382)
Emaitzaren banaketa	-	(7.449)	7.449	-	-
Bestelako zuzenketak.....	-	111	-	-	111
2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA	76.515	(5.368)	(6.925)	678	64.900

ETB, SAU	JAULK. PRIMAREN	AURREKO	JASOTAKO DIRU-LAG.,		
	KAPITALA ETA ERRETSERBAK	EKIT. EMAITZAK	EKIT. EMAITZA	DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZTIRA
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	179.495	(121.024)	(6.350)	13.100	65.221
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(6.818)	(2.064)	(8.882)
Kapitalaren igoerak.....	600	-	-	-	600
Funts sozialaren murrizketa.....	(21)	-	-	-	(21)
Emaitzaren banaketa	-	(6.350)	6.350	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	180.074	(127.374)	(6.818)	11.036	56.918
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(4.433)	(802)	(5.235)
Kapitalaren igoerak.....	885	-	-	-	885
Galeren konpentsazioa	(134.192)	134.192	-	-	-
Emaitzaren banaketa	-	(6.818)	6.818	-	-
2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA	46.767	-	(4.433)	10.234	52.568

.../...



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

.../...

EI, SAU	JAULK. PRIMAREN KAPITALA ETA ERRETSERBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	EKIT. EMAITZA	JASOTAKO DIRU-LAG., DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZTIRA
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	14.499	(11.666)	(40)	-	2.793
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(294)	-	(294)
Kapitalaren igoerak	-	-	-	-	-
Emaitzaren banaketa	-	(40)	40	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	14.499	(11.706)	(294)	-	2.499
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(1.517)	-	(1.517)
Kapitalaren igoerak	9	-	-	-	9
Galeren konpentsazioa	(12.000)	12.000	-	-	-
Emaitzaren banaketa	-	(294)	294	-	-
2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA	2.508	-	(1.517)	-	991
GI, SAU					
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.531	(4.346)	89	-	1.274
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(85)	-	(85)
Kapitalaren igoerak	-	-	-	-	-
Emaitzaren banaketa	-	89	(89)	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.531	(4.257)	(85)	-	1.189
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(91)	-	(91)
Kapitalaren igoerak	5	-	-	-	5
Emaitzaren banaketa	-	(85)	85	-	-
2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.536	(4.342)	(91)	-	1.103
EITBNET, SA					
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	1.094	(395)	(417)	-	282
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(498)	-	(498)
Kapitalaren igoerak	350	-	-	-	350
Emaitzaren banaketa	-	(417)	417	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	1.444	(812)	(498)	-	134
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(234)	-	(234)
Kapitalaren igoerak	50	-	-	-	50
Galeren konpentsazioa	(1.310)	1.310	-	-	-
Emaitzen banaketa	-	(498)	498	-	-
2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA	184	-	(234)	-	(50)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUEN FLUXUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB, SAU	EI, SAU	GI, SAU	EITBNET, SA
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(6.925)	(4.433)	(1.517)	(91)	(234)
Emaitzari doiketak	6.837	7.089	767	172	179
Kapital arruntean aldaketak	4.796	(399)	755	(59)	246
Eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	(21)	48	(1)	-	21
GUZTIRA	4.687	2.305	4	22	212
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Inbertsioengatiko ordainketak.....	(976)	(6.287)	(11)	(27)	(262)
Inbertsio ezagatiko kobrantzak	-	-	-	-	-
GUZTIRA	(976)	(6.287)	(11)	(27)	(262)
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak...	-	4.425	10	5	50
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak		1.000	(377)	-	-
GUZTIRA	1.000	4.048	10	5	50
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA					
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	8.925	17	6	5	-
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	13.636	17	9	4	-
GUZTIRA	4.711	-	3	1	-

IV.3 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIETATEEN AURREKONTU LIKIDAZIOA

2014ko ekitaldirako kapital eta ustiapen aurrekontuak honako hauek dira:

KAPITALAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB, SAU		EI, SAU		GI, SAU		EITBNET, SA	
	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.
INBERTSIOAK										
Ibilgetuko inbertsioen igoera.....	50	-	4.385	5.485	10	11	5	27	50	9
Finantza inbertsioen gehitzea.....	950	950	-	-	-	-	-	-	-	240
Bestelako inbertsioak	-	26	-	189	-	-	-	-	-	-
Finan. pasib. baliabideen murriztea	-	-	1.042	-	-	-	-	-	-	-
Ondare baliabideen gehitzea.....	-	-	-	-	-	-	-	-	-	13
Truke tipoen bariazioaren eragina.....	-	-	-	65	-	-	-	-	-	-
Eskudiruaren igoera garbia.....	-	4.711	-	1	-	3	-	-	-	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	1.000	5.687	4.385	6.782	10	14	5	27	50	262
FINANTZAKETA										
Ustiapen jardueren eskudir. fluxua	-	4.687	-	2.358	-	4	-	22	-	212
Transferentziak, diru-lag., dohaint.....	1.000	1.000	3.500	3.539	-	-	-	-	-	-
Ondare baliabideen gehitzea.....	-	-	885	885	10	10	5	5	50	50
Eskudiruaren murrizketa garbia.....	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	1.000	5.687	4.385	6.782	10	14	5	27	50	262



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

USTIAPENAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB, SAU		EI, SAU		GI, SAU		EITBNET, SA	
	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.
GASTUAK										
Hornidurak.....	34	282	40.159	35.946	1.845	1.799	209	191	1.305	1.184
Langileria-gastuak	4.010	3.999	34.930	34.516	12.535	13.223	2.459	2.475	827	968
Kanpoko zerbitzuak	1.400	1.578	23.037	23.147	5.354	5.669	1.212	1.187	926	768
Ibilgetuaren amortizazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Tributuak	3	3	70	87	118	133	10	12	-	-
Bestelako ustiapen gastuak	-	-		131	-	-	-	-	-	-
Finantza gastuak	12	30	50	-	-	3	-	-	-	-
Eman beharreko diru-laguntzak.....	105.873	105.873	-	-	-	-	-	-	-	-
Ibilgetua besterentz. emaitza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kobr. kntuen igoera, ordaintzekoen murr.-	-	-	2.623	-	-	-	16	-	-	-
Ustiapen jardueretan fluxu positiboak.....	-	4.687	-	2.358	-	4	-	22	-	212
GASTUAK GUZTIRA	111.332	116.452	98.246	98.808	19.852	20.831	3.890	3.903	3.058	3.132
SARRERAK										
Negozio zifraren zenbateko garbia	-	-	9.889	10.423	3.242	3.207	529	542	3.058	2.865
Bestelako ustiapen sarrerak	3.672	4.012	2.385	2.435	-	2	3.361	3.361	-	-
Jaso beharreko diru-lag.	107.634	107.634	85.902	85.902	16.610	16.610	-	-	-	-
Ustiapen diru-lag. emaitzetara egoztea....	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Izakinen bariazioa.....	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ibilgetu ez finantz.diru-lag. egoztea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Finantza sarrerak	26	10	70	48	-	1	-	-	-	21
Kobr. kntuen igoera, ordaintzekoen murr.	-	4.796	-	-	-	1.011	-	-	-	246
SARRERAK GUZTIRA	111.332	116.452	98.246	98.808	19.852	20.831	3.890	3.903	3.058	3.132



EUSKAL IRRATI TELEBISTA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOA (EITB) ETA MENDEKO DITUEN SOZIETATEETATIK BIDALITAKO ALEGAZIOAK

TXOSTENAREN ONDORIOEI ALEGAZIOAK

II. IRITZIA

II. 1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 ZUZENDARITZAKO LANGILEAK KONTRATATZEA

TVCP-HKEEren iritziz, Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 47. artikulua ez da bete, pertsona baten hautaketari dagokionez, 2014ko ekitaldian zuzendaritza-kargua betetzeko kontratatua izan zena, aipatutako aginduan aurreikusten diren merezimendu- eta gaitasun-printzipioak ustez hausteagatik.

Eztabaida hori ez da berria; erakunde eta sozietate publikoetan, oro har, eta EITBn eta bere mendeko sozietate publikoetan, zehazki, “zuzendaritzako langile” kontzeptuaren definizioa eta irismena ditu oinarri, TVCP-HKEEek berak 2014ko ekitaldiko fiskalizazioari buruzko txostenean adierazten duen bezala. Honako hau dio gai horren inguruan: *“Nahiz eta 5/1982 Legearen 16. artikulua aldatzen duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua zuzendari nagusia eskuduntzen duen profesionaltasun-irizpideen arabera izendatzeko erakunde publikoko eta bere sozietateetako zuzendaritza-langileak, aurretik izendapen horiek Administrazio Kontseiluari jakinarazita, egia da ere zuzendaritza-langileen figura ez dela zehaztuta geratzen”*.

Berriro ere ekarri behar dugu gogora 5/1982 Legeak, oro har, EITBko eta sozietateetako langileak hautatzean merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bete behar direla ezartzen badu ere (47.2 artikulua), 5/1982 Legeak berak ezartzen duela, halaber, arau orokor horren salbuespen bat, zuzendaritzako langileen kasu bereziko, hark duen berezitasuna kontuan hartuta, batez ere izendatzen dituen Zuzendaritza Nagusiari dagokionez zuzendaritzakudeaketan horiek duten *konfiantza bereziko* izaera kontuan hartuta (5/1982 jatorrizko Legearen 16. artikulua aldatzen duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua). Salbuespen-kasu horretarako, EITBren lege-arauak berak eskumena ematen dio Zuzendaritza Nagusiari zuzendaritzako langileak hautatzeko eta izendatzeko, *profesionaltasun-irizpideak baliatuta, eta izendatu aurretik Administrazio Kontseiluari jakinarazi beharko dio* (4/1996 Legearen 1.2. artikulua). Bada, bi eskakizun horiek, profesionaltasun-irizpidea betetzea eta aurretik jakinarazpena egitea, EITBko erakunde publikoak bete egin ditu, 2014ko ekitaldian eginiko zuzendaritzako langileen 4 izendapen berrietan, TVCP-HKEEren iritziz legea hautsi den zuzendaritzako langilearen kasuan barne. TVCP-HKEEek ez du alegaziorik aurkeztu horren inguruan eta, beraz, ulertzen dugu bi eskakizun horiek bete direla egiaztatuko zuela.

TVCP-HKEEren tesiak badirudi parekatu egiten dituela (badirudi diogu, fiskalizazio-txostenak ez baitu berariaz islatzen) EITBko eta sozietateetako zuzendaritzako langileen kontzeptua eta “goi-kargu”ena, eta zehaztasun gutxiz ematen du ulertzera goi-kargua dutenak bakarrik (arazuko aginduz gaur egun 4 baino ezin dira hartu, 130/1999 Dekretuaren



arabera) har daitezkeela EITBn eta bere sozietateetan zuzendaritzako langilezat, eta, alde honen iritziz, oker parekatzen ditu “zuzendaritzako langile” figura –EITBri aplikatzekoa den araudi bereziaren maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak aipatzen duena– eta “goi-kargua” –administrazio publikoan eta erakunde, sozietate eta erakunde publikoetako zuzendaritzako lanpostu jakin batzuei aplikatzekoa den administrazio-jatorrizko kontzeptua–. “*Jakin batzuk*” diogu, gai hau arautzen duen administrazio-araudiak berak berariaz zehazten duelako, modu berezian, tasatuan eta salbuespenez, zer zuzendaritza-karguk duten “goi-kargua”ren estatusa, Dekretuak zehazten dituen baina ez direla.

Baina araudi bidez tasatutako izendapen horrek eragotzi egiten du EITBk eta bere sozietateek, gainerako erakunde publikoek bezala, izendatu ahal izatea, esleitutako enpresa-kudeaketaren berezko erakunde-beharren arabera “goi-kargudunen edo horien antzekoen” izaera ez duten beste zuzendaritza-kargu batzuk. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendarien langile-estatutuak arautzen dituen otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak ezartzen du araudi hori baina ez duela aplikagarri eta, beraz, “goi-kargudun” izaera aplikatzen zaiela “... *zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendariei, halakotzat kalifikatzen dena 3. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera*” (2. artikulua- Aplikazio-eremua). Horrela, aipatutako 3. artikulua berariaz ezartzen du hauex: “*1. Jaurlaritzaren Kontseiluak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako erakundeak atxikita dituzten sailetako titularren proposamenez, erakunde horietako zuzendaritza-taldekideen zerrenda onartuko du dekretu bidez*”. Ordea, zuzenbide pribatuko erakunde eta sozietate publikoetan beste zuzendaritza-kargu batzuk egoteko aukera onartzen du, aipatutako Dekretuak araututako goi-karguez bestelakoak. Lege- eta antolamendu-aukera hori ezeztatzea da erakunde horien errealitatea ezeztatzea, ez direla strictu sensu administrazio publiko, nahiz eta enpresa-sektore publiko izenez ezagutzen denaren zati izan.

